MUST +PRO 2027AN PARTE HARTZEKO EUSKAL HERRIKO PROGRAMATZAILEENTZAKO DEIALDIA

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak izena emateko epea ireki du Euskal Herriko programatzaileek Must +PRO 2027an, Euskal Herriko musika-sektore profesionalaren topagunean, parte har dezaten.

1/ Deialdiaren xedea

Must +PRO topaguneak katalizatzaile bat izan nahi du, partekatutako esperientzien eta ikaskuntzaren bidez testuinguru egokia sortuko duena, Euskal Herriko musika-sektorea hazi dadin eta kalitateari eta lankidetzari dagokienez aurrera egiteko.

Horretarako, Must +PRO Euskal Herriko musika-sektore profesionalaren urteroko topagune gisa eratzen da, kontratazioak eta bestelako negozio-aukerak sustatzeko.

Hirugarren edizio honetan, Musika Bulegoak laguntza eskainiko die Euskal Herriko programatzaileei Must +PROn parte har dezaten. Ekimen honen bidez, topagunean bilduko diren proiektuak, erakundeak, proposamen artistikoak eta profesionalak ezagutzeko aukera eskaini nahi zaie, harreman profesional berriak sortzeko, lankidetzak bultzatzeko eta kontratazio aukerak sustatzeko.

2/ Data eta lekua.

Must +PRO topaketa profesionala 2027ko martxoaren 17an eta 18an egingo da Gasteizen. Europa Jauregian 10:00etatik 19:00etara bitartean programatutako jarduera profesionalak izango dira, eta showcaseak, berriz, IAK, Arkabia eta Jimmy Jazz aretoetan egingo dira 19:00etatik aurrera.

3/ Nori dago zuzenduta.

Deialdia Euskal Herriko eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) musika-programazioan eta -kudeaketan jarduten duten profesionalei zuzenduta dago.

- Programatzaile eta kudeatzaile publikoak: udaletxeetako teknikariak, areto publikoak, jaialdi publikoak, kontzertu ziklo publikoak, etab.
- Programatzaile eta kudeatzaile pribatuak: areto pribatuak, jaialdi pribatuak, sustatzaileak, etab.

Bereziki, Euskal Herriko musika-sektoreko proiektuak, erakundeak, proposamen artistikoak eta profesionalak ezagutzeko interesa dutenei, harreman profesional berriak sortzeko, lankidetzak garatzeko eta kontratazioak edo bestelako merkataritza-harremanak sustatzeko.

4/ Laguntza ekonomikoa.

Musika Bulegoak honako laguntza hauek eskainiko die hautatutako programatzaileei, haien profilaren eta bizilekuaren arabera:

- Hautatutako programatzaile guztiek (publikoek zein pribatuek) doako akreditazioa jasoko dute jarduera profesionaletan parte hartzeko.
- Gasteizetik kanpo bizi diren programatzaile pribatuei ostatu-gau bat eskainiko zaie, martxoaren 17ko gaua, hain zuzen ere.

*Oharra: Ostatu gaua izateko ezinbestekoa izango da bi jardunaldietako speedmetting eta showcasetako parte-hartzea.

- Gasteizetik kanpo bizi diren areto pribatuetako programatzaileek 50 euroko laguntza ekonomikoa jasoko dute garraio-gastuei aurre egiteko.

  *Oharra: 50 euroko garraio-laguntza ordainketa bakarrean emango da, Must +PROren antolakuntzak 5. atalean zehaztutako nahitaezko jardueretan parte hartu dela egiaztatu ondoren.

- Areto pribatuei zuzendutako laguntza ekonomikoko programa berri bat jarriko da abian, bertako musikari eta taldeen kontratazioa eta programazioa baldintza profesionaletan sustatzeko.

5/ Parte hartzeko baldintzak

1. Euskal Herrian jaio izana edo erroldatuta egotea.
    a. Euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) jaiotako pertsona fisikoek edo eremu horretan egoitza soziala duten pertsona juridiko pribatuek parte hartu ahal izango dute.
    b. Izen ematea egiten den unean, errolda edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek parte hartu dezakete.
2. Euskal Herrian kokatzen den jarduera publiko edo pribatu baten programatzaile edo kudeatzaile izatea.
3. Ezinbestekoa izango da honako jardueretan parte hartzea
    a. *Speedmeeting* saioak: martxoaren 17an eta 18an, 17:30ean.
    b. Showcaseak: martxoaren 17an eta 18an, 19:00etatik 23:00etara.

Izena emateko formularioa betetzea.

6/ Hautaketa-irizpideak

Musika Bulegoak, Must +PRO 2027 ekimenaren antolatzaileak, izena ematen duten profesionalen hautaketa egingo du, izen-ematean eskatutako informazioan oinarrituta. Gainera, kontuan hartuko da profil profesionalak topaketara bertaratzen diren pertsonen artean izan dezakeen interesa.

Hautatutako profesionalen kopurua aurrekontu-partidaren araberakoa izango da.

Musika Bulegoko bazkideek lehentasuna izango dute hautaketa prozesuan.

7/ Izena emateko formularioa.

Ezinbestekoa da izena emateko formularioa betetzea.

8/ Epeak eta jakinarazpenak

Must +PRO 2027ra joan nahi duten programatzaileen izen-ematea 2026ko abenduaren 2ko 23:59ak arte egin ahal izango da. Egun horretatik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Aukeratutako pertsonei jakinarazpena bidaliko zaie abenduaren 4an, izena emateko formularioan ematen duten posta elektronikoaren bidez. Hautatu ez diren pertsonek ez dute inolako jakinarazpenik jasoko.

9/ Informazioa eta kontsultak

proiektuak@musikabulegoa.eus